



**Ekainaren 6ko 502/2011 Ebazpena, Osakidetzako Giza-Baliabideetako Zuzendariarena, 2011ko aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena emateko epea zabaltzeko, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan deitutako kategorietan.**

Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2008 Ebazpenaren bidez (232. EHAA, 2008ko abenduaren 3koa), 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak onartu ziren, Osakidetzan lotura estatutario finkoa eskuratzeko.

Osakidetza Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiak (2011ko ekainaren 6ko EHAA), Osakidetzan aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzeko denak, arautzen ditu aldi baterako kontratazio-zerrenda berriak.

Horrenbestez,

## **EBATZI DUT:**


**Lehenengoa.-** 2011ko aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena emateko epea zabaltzea, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan deitutako kategorietan, Osakidetzan aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzeko den 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren Xedapen Iragankorren arabera (2011ko ekainaren 6ko EHAA).


**Bigarrena.-** Eskaera soilik modu telematikoan egingo da, <http://www.osakidetza.euskadi.net> web-orriko aldi baterako kontratazio-programa erabilita, bertara honela iritsi ahal delarik: Profesionalak/Giza-Baliabideak/Hautatze eta hornidura/Aldi baterako kontratazioa/Kontratazio-zerrendak 2011/Eskaera

**Hirugarrena.-** Eskaerak 2011ko ekainaren 8tik 27ra egin ahalko dira, biak barne.

**Laugarrena.-** Izena emateko epea zabaltzearekin batera web-orrian argitaratuko diren Jarraibideetan honako hauek zehaztuko dira: kontratazio-zerrendak zein kategoriari dagozkion, zeinek eman ahal duen izena, kontratazio-zerrendetan onartua izateko aurkeztu beharreko dokumentazioa, eta izen-ematearekin lotutako bestelako alderdi batzuk.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko zaio Osakidetzako Zuzendari Nagusiari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

 **Osakidetza**  
Vitoria-Gasteizen, 2011ko ekainaren 6an.  
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARITZA  
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS  
Izpta.: Tomás Mendoza Carnicero  
**GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA**



**518/2011 Ebazpena, ekainaren 8koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez, ekainaren 6ko 502/2011 Ebazpenean aipatutako epea luzatzen da, 2011ko aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena emateko 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan deitutako kategorietan.**


Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren ekainaren 6ko 502/2011 Ebazpenaren bidez, 2011ko aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena emateko epea zabaldu zen 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan deitutako kategorietan, eta bertan ezarri zen epe hori 2011ko ekainaren 8tik 27ra izango zela.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko (azararen 26ko 30/1992 Legea) 49.1 artikulua babesean, zeinek baimentzen baitu ofizioz epeak luzatzea, betiere epearen erdia baino gehiago ez bada,

**EBATZI DUT:**

Ekainaren 6ko 502/2011 Ebazpenean aipatutako epea 2011ko ekainaren 28raino luzatzea, 2011ko aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena emateko, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan deitutako kategorietan.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa ezar dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, web orrian argitaratzen denetik aurrera.



Iz.: Tomas Mendoza Carnicero  
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA